

IBI-A JAISTEKO FIRMA BILKETA
ETXEBIZITZEN IBI DUIN BATEN ALDE! ZERGAREN JAITSIERA ORAIN!

2016an Bizkaiko Aldundiak erabagi eban katastroa berrikustea eta eguneratzea IBI zergaren Foru Araua. Katastroa 40 urtez eguneratu barik egon ondoren, Aldundiak hile gutxi batzuk baino ez zituen erabili dokumentua berrikusteko, eta zelan lan hori astrapaladan egin zan, katastro eguneratua etxeen katalogazino okerra egin da eta etxeen balio katastrala ikaragarri igo da.

Katastroa eguneratzea Aldundiaren eskumena da, baina IBI zergaren zenbatekoa kalkulatzeko bigarren faktorea IBIaren tipoa da, eta tipo hori Udal bakotzak jartzen dau⁽¹⁾.

Abadiñoako Independentek eta EAJ alderdien erabagiz, **Abadiñoako etxebizitzaren IBI tipoa Durangaldeko altuena da eta Bizkaiko altuenetarikoa**: %0,25koa 180.000€ arteko balio katastrala dauken etxeentzat, eta %0,32koa 180.000€tik gorako balioa daukenentzat. Taula honetan daukazuez 100.000 euro bakotzeko herriz herri ordaindu behar diren kopuruak:

HERRIA	TIPOA	180.000€ra arte	180.000€tik gora
ABADIÑO	%0.250-0.320	250€	320€
IURRETA	%0.235	235€	
DURANGO	%0.205-0.290	205€	290€
ELORRIO	%0.203	203€	
BERRIZ	%0.150	150€	
ATXONDO	%0.120	120€	
ZALDIBAR	%0.120	120€	
MALLABIA	%0.072	72€	

Gobernu taldea dirutza bat batzen ari da IBlagaz, baina horren truke ez ditu eskaintzen zerbitzu gehiago. **Udalaren 2017ko sarrera-gastuen balantze ekonomikoa 1.090.334€ko superavita izan da.** Diru horretatik, Udalak 643.728€ jaso ditu IBIaren igoerari esker. Horrek esan gura dau IBIaren igoerarik egon ez balitz be Udalak 446.606€ko superavita izango ebala. Bestela esanda: 2017ko urtaldian Abadiñoako Udalak 643.728€ gehiago batu ditu IBIarekin, eta 2018rako egindako IBIaren modifikazioekin espero dau 482.379€ gehiago batzea. Orduan, **zergatik erabagi dau Udaleko Gobernu Taldeak IBIA igotzea jakin arren halakorik egin barik ere bardin superavita izango ebala?**

Superaviteko egoera batean IBIA igotzen daben Alkatetzak argi isten dau beretzat etxebizitza ez dala herritar guztien eskubide bat, baizik eta sarrera extrak lortzeko bide bat, nahiz horrela jokatzu herritar askoren ekonomia kaltetu. Hori jokabide okerra eta onartezina da.

Kontuan hartuta aurreko guztia, sinadura bilketa bat hasi dogu puntuok eskatzeko:

- **Jaitsi daitela herri osoko etxebizitzaren IBI tipoa eta ipini daitela tipo bat zerga duin bat ordaintzeko modukoa eta Udalari aukera emongo deitsona batzeko Katastroaren eguneraketa egin aurretik batzen eban diru kopuru bardina.**
- **Kendu edo aldatu daitela ia baserri gehienei eragiten deuten 180.000 euroko langa. Langa hori dala-ta, baserri gehienei %0,32ko tipoa aplikatzen jake.**

Katastroaren kalkuluari dagokionez:

- **Aldundiak egin dituen akatsak zuzentzeko, Udalak bateratu dagiazala katastroaren kalkuluagaz ados ez dagozan herritarren kexak, eta bat egin dagiala eurekin Aldundiari eskatzeko behar diren zuzenketak.**
- **Baserri-auzoek ez daukienez hiriguneetan dagozan zerbitzu bardinak, Udalak egin dagiala zonifikazio erreala bat ondo bereizteko baserri-auzoak eta kale-auzoak.**
- **Balio katastrala zehazterakoan, kontuan hartu daitela baserri-auzoek herriari emoten deitsoen balio erantsia (historikoa, kulturala, ekologikoa, e.a.).**

URRIAREN 29RA ARTE. SINADURA ELEKTRONIKOA: Change org plataformatik “Abadiñoako IBI-aren zerga jaitsi”

IDATZIZKO SINADURA: (Matienan) Teo harategian, Marianen fruta-dendan, BM supermerkatuan, Tipi-tapak, Taberna Zarra, Vancouver eta Bedats tabernetan, Petiten, (Zelaietan) Solokon, eta (Muntsaritzen)

Arriaundi okindegian, Munts tabernan eta Eroslen.

IZEN-ABIZENAK	NAN zenbakia	AUZOA	SINADURA

⁽¹⁾IBI zerga = Etxebizitzaren Balio Katastrala (Aldundiak jarria) x Grabamenaren Tipoa (Udalak jarria)

Adb1= 100.000€ko balio katastraleko etxea x 0.0025 (Abadiñoako tipoa, %0,25) =250€

RECOGIDA DE FIRMAS PARA SOLICITAR LA REBAJA DEL IBI

¡POR UNA IBI DE VIVIENDA DIGNO! ¡REBAJA DEL IMPUESTO, YA!

En 2016 La Diputación Foral de Bizkaia emprendió la revisión del Catastro y la actualización de las tarifas del IBI. Tras 40 años sin modificar el Catastro, la Diputación efectuó una revisión tan apresurada que el resultado ha sido un Catastro en el que muchas viviendas aparecen catalogadas de forma incorrecta y donde el valor catastral de las viviendas ha aumentado exponencialmente.

La actualización del Catastro es competencia de la Diputación, pero el cálculo del IBI se realiza en base a un segundo factor, el tipo de IBI, que es fijado por cada Ayuntamiento⁽¹⁾.

Por decisión de los grupos Abadiño Independienteak y PNV, **el tipo de IBI que se aplica a las viviendas de Abadiño es el más alto del Duranguesado y uno de los más altos de toda Bizkaia**: un tipo del 0,25% para las viviendas de hasta 180.000€ de valor catastral, y del 0,32% para las viviendas de valor catastral superior a los 180.000€.

En la siguiente tabla se muestran las cantidades que en concepto de IBI se tributan en cada municipio por cada 100.000€:

MUNICIPIO	TIPO	Hasta 180.000€	Más de 180.000€
ABADIÑO	%0.250-0.320	250€	320€
IURRETA	%0.235	235€	
DURANGO	%0.205-0.290	205€	290€
ELORRIO	%0.203	203€	
BERRIZ	%0.150	150€	
ATXONDO	%0.120	120€	
ZALDIBAR	%0.120	120€	
MALLABIA	%0.072	72€	

El equipo de Gobierno está ingresando en las arcas municipales en concepto de IBI ingentes cantidades de dinero, pero sin que ello se refleje en un aumento equivalente de servicios. **Al concluir el ejercicio 2017 las cuentas del Ayuntamiento arrojaron un superávit de 1.090.334€.** De esa cantidad, 643.728€ proceden directamente del incremento de las tasas del IBI, lo cual significa que incluso si el Ayuntamiento hubiera decidido no aumentar el IBI la recaudación habría seguido siendo positiva, con un superávit de 446.606€. Dicho de otro modo: la liquidación de los presupuestos del 2017 muestra que el Ayuntamiento ha obtenido con la subida del IBI un ingreso suplementario de 643.728€, y que si mantiene los presentes tipos de IBI recaudará previsiblemente otros 482.379€ en el ejercicio 2018. Entonces, **¿por qué decidió el equipo de Gobierno subir el IBI sabiendo que incluso manteniéndolo en los niveles existentes mantendría su superávit?**

La decisión de la Alcaldía de subir el IBI en un contexto de superávit, gravando innecesariamente la vivienda de los/las abadiñarras, revela una concepción de la vivienda como fuente de ingresos extra en lugar de como derecho básico de toda la ciudadanía, lo cual consideramos erróneo e inaceptable.

Considerando lo anterior, se ha iniciado una campaña de recogida de firmas para solicitar lo siguiente:

- **Reducción de tipo del IBI de las viviendas de todo el municipio y establecimiento de un tipo digno y razonable que garantice al Ayuntamiento el mismo nivel de ingresos por este concepto que los que tenía antes de la actualización del Catastro.**
- **Eliminación o modificación de la barrera de los 180.000€ que afecta a la mayoría de los caseríos del municipio y por la cual se aplica a la mayoría de ellos un tipo del 0,32%.**

Con respecto al cálculo del Catastro:

- **Solicitar al Ayuntamiento que unifique las quejas y alegaciones de los/las ciudadanos/as que han expresado discrepancias con el cálculo del Catastro realizado por la Diputación, y que los acompañe para exigir a la Diputación la corrección de los errores reclamados.**
- **Dado que los barrios rurales del municipio carecen de algunos servicios de los que disfrutaban los núcleos urbanos, el Ayuntamiento realizará una zonificación real del municipio diferenciando claramente los barrios rurales de los núcleos urbanos.**
- **A la hora de fijar el valor catastral de las viviendas rurales se tomará en consideración el valor añadido que los barrios rurales aportan al municipio.**

**HASTA EL 29 DE OCTUBRE, FIRMA DIGITAL en la plataforma change.org “¡bajad el impuesto del IBI de Abadiño”
ENTREGAR LAS FIRMAS EN: (Matiena) carnicería Teo, frutería Marian, BM, Tipi-tapak, Taberna Zarra, Vancouver,
Bedats y, Petite, (Zelaieta) Soloko, y (Muntsaratz) panadería Arriaundi, Munts y Erosle.**

NOMBRE-APELLIDOS	DNI	BARRIO	FIRMA

⁽¹⁾Impuesto IBI = Valio Catastral de las Viviendas (Diputación) x Tipo de Gravamen (Ayuntamiento)

Ej 1 = vivienda de 100.000€ de valor catastral x 0.0025 (Tipo aplicado en Abadiño: 0,25%) =250€